



## Nortasunen lekua eztabaida politikoan

*Iñaki Iriarte López \**

**S**eguraski gertaeraren garrantzia eztabaidagarria izanen da, baina tradizional-ki zihurtatu da Mendebaldeko batasun erlijiosoa 1517ko urriaren 31an haus-ten dela, Luterok Wittenberg-eko elizako atean bere 95 tesi ospetsuak iltzatzen ditunean. Edozein kasutan ez dago dudarik orduz geroztik Europak gerrate luzea ezagutuko duela erlijioa zela kausa. Historialari batzuen arabera, XVI. eta XVII. mendeetako gerra erlijiosoen eragin zituzten bost milioi hildako baino gehiago.

Bere garaian hagitz gutxik hauteman bazuten ere, krisialdi eta gerrate honetatik ateratzeko bidea laikotzapen prozesu batetik abiatu zen. Horrek suposatzen zuen sinismen erlijiosoen pribatizazioa. Alegia, norberaren barnekotasunean giltzatu ziren iharduera politikoak ez oztopatzeko. Honen eretzean, Hobbes, Locke eta Grocio bezalako filosofoek iradokitu zuten horma bat eraiki behar zela

\* *Soziologian doktorea eta EHU-ko irakaslea*

politika eta erlijioa artean. Ordutik eta bakarrik ordutik tolerantzia ezarri eta ba-  
kea finkatzen ahalko zen.

Aitortu behar da ideia honen garapena korapilatsu izan zela eta behin baino  
gehiagotan tolerantzia eta erlijioaren pribatizazioa babestu zituztenak kontrae-  
san nabarmenetan erori zirela. Tomas Morok, esate baterako, uko egin zion ate-  
oekiko errespetuari eta Lockek, tolerantziaren apostulua, justifikatu zuen azken  
hauen eta katolikoan bazterketa politikoa. Alta, oztopo, kontraesan eta duda  
guztien gainetik, kontua da honezkerok mendebaldeko gizarteetan erlijioak galdu  
egin duela ia erabat edozein garrantzi politiko.

Baina mendebaldetar gehienok ez gara besterik ailegatu erlijioa afera ez  
politikotzat jotzera. Horrez gain, amititzen dugu oso eremu pribatuari dagokio-  
la. Bertze era batez errana, sinismen erlijiosoak errespetatzeaz gain, ohitu gara  
hietetaz ez galdetzera. Ez dut erranen tabu bat direnik, baina horiekiko errespe-  
tua iristen da hain puntutaraino ezen maiz aski ez ditugun ezagutzen egunero tra-  
tatzten digununen aburu erlijiosoak. Hortaz, ikasi dugu txokoratzen erlijioari bu-  
ruzko eztabaidak, kontsideratuz barrukotasunaren partea direla eta, gainera, ha-  
serrebidetarrak arrakatsuegia. Gauzak honela, erlijioa desagertu da (edota gehienez  
desagertzeurren dago) eremu politikotik. Agian aipa liteke aurreko baieztapena-  
ren aurkako proba gisa Frantzia "chador" delakoarekin berriki gertatutakoa,  
baina errealtatean auzoko estatuan sortu polemikak erakusten diguna da erlijioa  
*res publica*-ren esparrutik aterarazteko nahi garbia.

Azpimarratu behar da korrante laiko honek ez duela suposatzen erlijioa de-  
sagertzeurren dagoenik ezta ere bere garrantzi soziala gutxitzeko bidean. Garai  
batez anitzek pentsa zezaketen erlijioak zerikusi eskasa izanen zuela etorkizune-  
ko gizarteetan, baina errealtatea anitzek korapilatsuago agertu egin da. Honi doa-  
kionez, ematen du ezen, praktika erlijiosoa behetu bada ere, ateoan kopurua ez  
dela sobera hazten ari eta, kontuak kontu, ez dago ukatzerik mendebaldeko he-  
rialdeetako populazio gehienak segitzen duela bere antzinako sinismen erli-  
jiosoei eusten. Are gehiago, horietatik anitzek, zenbat eta herenak edo Espanian,  
fidel eta puntualki praktikatzen ditu.

Nire irudikoz, Hobbesek, Lockek, etab.ek iradokitutako argumentazioak  
interes itzela du XXI. mendeko gizartetarako. Bereziki talde nortasunei buruzko  
eztabaidak aintzat hartzen ditugularik. Honen eretzean, bitxia da ikustea nola  
XIX. mendeak aitzin egin ahala nortasunen aldarrikapenak ordezkatu zuen erli-  
jioekiko kezka. Izan ere, mendeko bigarren erditik aitzina sortzen diren tokian  
tokiko kulturen aldeko mugimenduek egotziko zizkieten nortasun etnikoei lehen  
erlijioari eratzikitzen zitzaizkion bertuteak. Erranen da, adibidez, sentimendu  
nazionalak dakarrela klase sozialen arteko zuzentasuna, hiritar-elkartasuna, de-  
linkuentzia gutxitzea, produktibitatearen igoera, zoriontasun orokorra, etab. Ho-

nen arabera, abertzaletasunak balioko luke gizarteen barne arazoak solbatzeko eta elkarbitziza errezago bihurtzeko.

Baina, zein da talde nortasunen zentzua? Edota, hobeki erran, zein da beren edukina? Manten ditzakegu erreferente politikotzat?

Lehenbiziko galderari dagokionez baieztea dago talde nortasunaren erranahia biziki problematikoak dugula. Suposatzen da honen atzetik kultura dagoe-la, baina ez da inolako sekreturik kontzeptu hau arazo-iturri handia dela. Nahiz eta soziologo eta antropologoek erabiltzen jarraiki, gero eta gehiago dira berarekiko zalantzak erakutsi dituztenak. Izan ere, saiatzan bagara xehetzen kulturaren edukinak ohartuko gara delako nozioaren zailtasunaz. Oro har, barne hartzen ditu "goi mailako kultura" (arte ederrak, elertia, musika, etab.), ohiturak, mitoak, hizkuntza, sinismen kolektiboak, kirola, jokoak, sukaldaritza, moda, sexu eta belaunaldien arteko hartu-emanak, zentzu estetikoak, zuzenbidea, ekonomia, moralak, praktika politikak, niaren kontzeptua, familiarena, eta abar luze bat (luzee-gia ote?). Kulturak, horrela hartuta, baldintzatuko gintuzke gure bizitzako arlo tikienetan, hala moduz ezen gure izaerako ezin parte ez litzatekeen geratuko bere ekintza-eremutik at. Zentzu honetan kulturari dei egiteak orokorregia dirudi, kontzeptu sobera zabala den heinean politika bezalako iharduera praktikoa horretan oinarritzeko.

**H**ori gutxi balitz bezala, aintzat hartu behar da, halaber, "nortasun" hitzak Harras aplikazio-eremu zehazgabea duela. Hots, mintza daiteke giza nortasun batez, europar nortasun batez, klase nortasunaz, sexuzkoaz, familiako nortasunaz, auzokoaz, adiskide talde nortasunaz eta, muturrean, baita nortasun pertsonal eta pribatu batez ere. Azken honek franko garrantzitsu ematen du, zeren eta kultura, bere zehazgabetasuna gora behera, konkretatzen baita norbanakoengan. Bertze era batez errana: badira gizabanakoen bidez non kulturaren edukin desberdinek aurkitzen duten xehetzeko bidea. Horrek erran nahi du, bertze gauza batzuen artean, ez dagola, esaterako, kultura frantsesarik haragi eta hezurrezko frantsesez aparte. Are gehiago, paradoxikoki, frantses banaren nortasuna, iturri soziala badu ere, eratortzen da pertsonalitate errepikaezin batean. Modu honela, kultura sakonki soziala izan arren, soilik gauzatzen da era pribatutan, hots, indibiduoengan.

Ildo beretik, gure nortasun pertsonal horren ahaztu beharko ez genukeen bertze ezaugarri bat da ez dela, nolabait errateko, uniformeak. *Collage* antzekoak gara, albo desberdinak ditugu eta horrexegatik portaera diferentea dugu ez soilik inguruabar eta testuinguruen arabera, baizik eta baita gure noizbehinkako aldar-tearen arabera ere. Zentzu horretan erratea dago nortasunak azaltzen direla modu nahaspilatsu eta aldakor batean

Seguraski honek den honek ez ditu baliogabetzen kultura eta nortasun kontzeptuak. Baina, hori bai, beraien aberastasuna eta aniztasuna azpimarkatzera garamatza.

Aniztasuna da, prezeski, modernizazio aurreratuaren ezaugarrietako bat. Haietan gero eta nortasun-panorama zabalago eta aberatsagoa dugu. Aburu honek harrigarria irudi dezake. Luzera suposatu da modernizazioa areagotu ahala kultura eta nortasun anitz desagertuko lirakeela eta, ordea, pentsaera mundiala inposatuko litzatekeela. Oraindik ere askoren erranetan globalizazioak derrigorez eraginen du tokian tokiko bizimodu eta baloreen desagertpena. Ez da hauxe globalizazioaren mitoa aztertzeke tokia, baina edozein delarik gogoko nuke nabarmendu egun modernizazioa ez dela ekartzen ari nortasunen eraberdintasuna edota uniformizazioa, gutxienez gizarte aurreratuetan. Baliteke modernizazioko urrats batzuetan sahistezina denik forma kultural batzuen iraungipena eta, honi doakionez, ez dago ukatzerik modernizazioaren aurrerakuntzarekin batera anitz sinismen, hizkuntza, etab., txokoratuta eta hiltzera kondenaturik izan direla. Baina,aldi berean, ematen du ezen, modernizazioko maila batera iritsiz gero, honek, panorama kulturalaren aniztasuna ez urritzeaz gain, kontrakoa dakarrela, hots, alditik aldiro eta bizimodu, ikuspegi, hitzaldi, agerpen kultural eta nortasun gehiago izatea. Nortasun batzuk, gainera, non osagai zaharrak eta berriak elkar nahasten diren. Modernizazioaren ezaugarri honen agerpen garbia dugu gaurko euskal gizartea. Horra, XXI. mendeko Euskal Herria Sabino Aranek, Campio- nek edota Unamunok soma zezaketen baina anitzez pluralagoa eta aberatsagoa da. Eta –zer erranik ez– ez du ematen desagertzeko arriskupean dagoenik (ohiko biktimisten aburuak aburu).

Honetatik den honetatik, jotzen dut nortasuna kontzeptuak (eta bidenabar kulturarenak) ahalik eta paper txikiena jokatu beharko lukeela gure gizartearen alor politikoan. Zergatik? Gurea bezalako gizarte aurreratuetan nortasuna pertsonalegia eta konplexuegia delakoz politiko-iharduera horretan funtsatzeko. Horra, erlijioa politikatik baztertu dugun moduan, nortasuna eremu beretik at kokatu beharko litzateke. Dudarik gabe, ari naiz adierazten sinismen pertsonal bat, Euskal Herriko eztabaida politikoari ekarpen bat egiteko asmoz eta ez mintzatzen delako gaiari buruzko debateak indarrez debekatzeak.

Nire irudikoz, proposamen honek ez du erran nahi nortasun kulturalak desagertzera kondenatuta daudenik. Sinismen erlijiosoek indarrez dirauten bezala, nortasunari buruzko kezka jarraituko du, zihurrenik, hagitx presenten egoten gure gizarteetan, baina konbentziturako nago ikasi beharko genukeela eztabaida politikoei ez lotzen. Are gehiago, erlijioaren despolitizazioak benetako erlijiotasunari eta sinismen guztiekiko tolerantziari bidea eman zien bezala, pentsatzea dago nortasun-sentimenduen pribatizazioak sortuko duela euren garapen librea.

Identitate etnikoa politikaz landara atera duen gizarte batean norberak bere burua jo dezake nafar, espaniar, euskaldun edota ondarrukokatza, askatasun osoz, azken finean bere izendapena berorri eta soilik berorri dagokiola.

**H**oni dagokionez, nabarmendu beharko litzateke nortasunaren parte-hartzea Heremu politikoan aberastasun kulturalaren kalterako datorrela. Izan ere, eta ikusi berri dugun moduan, nortasun-mapa gizarte aurreratuetan arrunt konplexua da. Seguraski, konplexuegia eguneroko eztabaida politikoetarako. Azken hauek maiz ez dute gehiegizko sotiltasunik antzekotzat hartzen, oztopatzen baitzituzte *res publico*-aren kudeaketak behar dituen erabaki-hartzea eta iritzien taldekatzea. Zentzu berean nortasunaren politizazioak exijitzen du gehienetan erakitzea “ereduzko nortasun” bat, imaginatua, izaera kolektiboaren irudi sinplifikatu gisa funtzionatzen duena, non desberdintasun pertsonalak gaindituta gertatzen diren batasunaren izenean. Bertze era batez errana, talde kontzientzia politiko bat sortzeko ezabatzen ohi dira ezaugarri pertsonalak edota bertze talde batzuekiko amankomunak direnak azpimarkatzeko talde hori batu eta isolatzen dutenak. Horra, maiz mugimendu nazionalistek historia eta tradizioa itxuragabetzen dute, beraien aniztasuna murriztuz, nortasun homogeen baten irudia sortzen ahal izateko, nahiz eta horretarako herrien ondare kulturalaren alde handia baztertu. Modu honetan, paradoxikoki, nortasun kultural baten aldeko ekintza politikoak sinplifikatzen ohi du bere benetako izaera. Hau aintzat hartuz ez da harrizkoa talde-nortasunen aldeko borroka politikoak horrenbertze gataska eragin izana. Hura indartzeko eta definitzeko nahian, nazionalismoek era antagoniko batean konprenitzeko joera azaltzen ohi dute, albo batera utziz nabardurak, kontraesanak, barne desberdintasunak, bertze talde batzuekiko puntu amankomunak, etab., alegia, talde-nortasuna zalantzan para dezakeen guzia.

Baina, orduan, politikak txokoratu beharko balitu nortasun atxikipenak, zertaz aritu beharko litzateke? Zeintzu liriateke bere gaiak, bere kezak? Nire irudikoz honako hauek, prezeski Iraultza frantsesaz geroztik tradizio progresistak erakusten dizkigutenak: gizabanakoen eskubideak eta betebeharrak, batzuen eta bertzeen gauzapena, zeri deritzogun eskubide, zeri askatasuna, zertara gauden bortxatuta gizartekide gisa, eta abar. Eta, noski, horretan barna, nola gauzatu behar diren eskubide eta betebeharrak pertsonal horiek. Horiexek liriateke laburki hiritarroi arduratu beharko lieketen benetako arazoak, hauteskundeetako hizpideak. Oro gara akort ezen iharduera politikoaren garapenean ez direla aintzat hartu behar pertsonen arraza, odola, endea, sexua, diru maila, heziketa edota erlijioa. Zergatik kontatu beharko luke gure nortasunak, horren afera pertsonal baten? Sexuen arteko benetako berdintasun politiko eta sozialaren alde borroka-

tzen ari garen unean, ba al du zentzurik exijitzeak probintzi batzuetan sortuek bertze tokitakoek baina eskubide diferenteak izaterik?

Ez dago erran beharrik eskubide eta betebeharrei buruzko debateen gainetik, norberak askatasun osoa izan beharko lukeela bere burua definitzeko: euskalduna, nafarra, erriberakoa, espainola, europearra, latino, ... Baina ez litzateke soberan gogoratzea ezen hitz hoiien gainetik gizabanako eta gizarte baten izaera beti izanen dela aberatsegia etiketa baten bidez laburtzeko.